



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Erabilera, Trafikoa eta Bide Segurtasuna arautzeko Udal Ordenantzaren 15. art. behin betiko aldatuta gelditu da. Aldaketa Udalbatzak 2014ko abenduaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zuen eta iragarkia 2015eko urtarrilaren 9ko 5. zk.dun BAOean argitaratu zen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 art.an ezarritakoa betez. Testu osoa argitaratu ondoren, indarrean sartuko da.

**ERABILERA, TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA BIDE SEGURTASUNA
ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN 15. ART. ALDATZEA.-**

“Hirigunean motordun ibilgailuak zirkulatzeko baimendutako abiadura handiena eta txikiena kasu bakoitzean seinaleen bidez adieraziko da. Seinale berezirik ezean oro har ezarrita dagoen abiadura handiena beteko da, 30 km orduko hirigunean. Agindu hori bete ezean I. eranskineko taularekin bat etorriz zigortuko da.”

Amorebieta-Etxano, 2015eko martxoaren 26a